

TXIKITTO



***Akabo eskolak,
badatoz Sanjuanak!***

● **La Salle** ikastetxetik bertso saioetan parte hartu duzuon guztioi zorionik beroenak. Beste ikasturte bat bukatzeaz dago eta, hau agurtzeko, hor doakizue kurtsoko azken bertsoa:

Agur botatzeko
era aproposalan,
bertsotan dihardugu
gure ikastetxean,
kurtsua bukatzen da,
oporrak aurrean,
Txikitto aldizkaria,
hartu besapean,
eta kostaldean,
edo mendi artean
euskara batean,
elkartu artean,
berriro zuekin
hurrengo irailean (bis).
Doinua: Betroiarena (9 puntukoa).



● Maiatzaren 20 eta 22an, **Urkizu** eskolako jaialdiak eskaini genituen. Zer ez genuen ikusi! Opera, dantza, antzerkia, musika, gimnasia erritmikoa, ...

Maiatzaren 29an, 5. mailakoek Coliseo antzokian bertsoak abestu zituzten, beste eskola batzuetako umeekin batera. Entzule guztiak liluratuta utzi zituzten hain bertso ederrekin.

Ekainaren 2an, Urkizu eskolako 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleak, Hezkuntza Esparrura joan ziren antzezlan bat ikustera: "*Magia teilatuan*". Oso polita izan zen eta gustora gelditu ziren guztiak.

Ekainaren 12an, Lehen Hezkuntzako ikasleak Arratera igoko dira eguna pasatzera. Eibartarron ohitura zaharrari, gure eskolan ere eusten diogu. Ah! Eta gero dena lagatzen dugu aurkitu baino txukunago.

Ekainaren 13an, Haur Hezkuntzako umeak Basondora joan ziren, euskal mitologiako pertsonaiak ezagutzera eta ondo pasatzera. Ekainaren 20an Urkizu eskolan "*Jolas handien*" eguna ospatuko dugu. Tigreak eta lehoiak lehian dabilta ea nork puntu gehiago atera. Egun horretan erabakiko da nor den irabazlea. Gainera, sorpresa batzuk ere egongo dira.

Aupa lagun!

Heldu da agur esateko ordua. Sanjuanak ate joka daude, uda heltzear eta ikasturtea amaitzear. Amaiera horrek, gainera, Txikitto-ren agurra suposatzen du. Agur bat baino, 'gero arte' esan beharko genuke.

Urritik hona, zuekin egon gara hilero-hilero ikastetxeetako berriak aipatzen, txistek kontatzen, denborapasak egiten, eskulanak sortzen eta beste hainbat gauza lantzen. Horrez gain, pertsonaia famatuak ezagutzeko aukera izan duzue elkarrizketen bidez, euren gustu, zaletasun eta desioen berri izanez.


Txikitto egiten dugunok eskerrak eman nahi dizkizuegu ikasturte osoan zehar egin duzuen lan guztiagaitik eta aldizkaria egiterako orduan lagundu diguzuenagaitik. Zuek gabe, Txikitto ezin izango litzateke hilabetero ikastetxeetara iritsi. Beraz, Txikitto zuek zarete.

Orain, lehendabizi, Sanjuanak datoz. Danborrada, musika, antzerkiak... denetarik egongo da herrian ondo pasatzeko. Honekin batera, udan sartuko gara. Txikitto egiten dugunok espero dugu uda oso oso on bat pasatzea, pilak errekaratzea eta oporretatik bueltan kurtso berria gogotsu hastea.

Beraz, ondo pasatu ezazue oporretan eta datorren ikasturtera arte!


Txikitto!

zu margolari




**HARTZEK ERE GUSTUKO DUTE
HONDARTZAN JOLASTEA... EZ DUZULA
SINISTEN? MARGOTU HONDARTZAN
AURKITU DITUGUN HARTZOK!**

Ava Fernandez



1. Miau egiten duen animalia
2. Ikasten dugun tokia
3. Gipuzkoako hiriburua
4. Odolaren kolorea
5. Eibarko jokalaria bat
6. Bairen aurkakoa

Mabilen
Lagundu umeari, hegazkina iristen.



Kereia Unamuno

BILA ITZAZUE EIBARKO JOKALARIAK:

S	L	M	T	I	N	N	E	R	B
Z	M	T	X	L	G	S	K	A	Y
U	E	H	I	C	O	D	I	N	A
V	D	R	K	E	I	R	D	E	G
W	I	A	I	A	R	S	A	A	Ü
A	N	L	L	S	I	H	G	O	E
B	A	L	A	Ñ	A	S	O	I	A
L	U	E	T	X	H	L	S	L	R
S	R	U	H	L	S	I	Z	M	T
T	B	C	C	A	I	M	S	X	L
K	D	E	T	F	J	S	H	G	J


1. TXIKI
2. CUELLAR
3. GOIRIA
4. MEDINA
5. CODINA
6. YAGÜE
7. ALAÑA

ORDENATU LETRAK: BRAIE
EHIRAR
ALZDAI
SAINET
UFBOTAL


DENBORAPASAK

LABERINTOA

-Ea aurkitzen duzun bidea



MALEN URIBEETXEBERRIA.




1. Gure hiria
2. Amaren ama
3. Egurdiko jatordua
4. Gaurko egunaren atzekoa
5. Eramanen kontrakoa
6. Egiptokoan jainkoa
7. Itsasoko animaliarik handiena

AKATSAK KUZENTZEN

ZENBAT BIDER ESAN OTE DUTE
MAISU ETA ANDEREÑOEK
AKATSAK ERREPIKATZEN
DIRELA! ORAINGOAN ZENBAT
DAKIZUEN ERAKUSTEKO AUKERA
IZANGO DUZUE ETA, GAINERA,
SARI BAT JASO DEZAKEZUE.
ESALDI HAUETAKO BI TXARTO
DAUDE. PARTE HARTU
LEHIAKETAN ETA, ASMATUZ
GERO, SARIA IRABAZI
DEZAKEZUE!

HILABETEKO IRABAZLEA



IRENE AMARILLA

- Hondartzara joango naiz oportetan.
- Jonek ekarriko zenizkit boligrafoa eta koaderno.
- Tamalez, ez dut jakin azterketa ondo egiten.
- A ze ona! Datorren urtean Eibar 2.A mailan ibiliko da!
- Egon lasai, ondo irtengo da dena.
- Esango al zenidake ariketa hau nola egiten den?
- Kokoteraino naukazu! Joan zaitez pikutara!
- Ondo pasa ezazu oportetan!

Izena:

Telefono zenbakia:



Yraolagoitia
liburudenda

Bidebarrieta 20 943 20 16 17

Herria tren-geltokitik kilometro batzutara zegoen. Bidaiari xuhur batek galdetu zion taxi gidariari:
-Zenbat kobratzen duzu hemendik herrira?
-Bostehun pezeta, gizon.
-Eta maletagatik?
-Maletagaitik, bat ere ez, jauna.
-A, ederki; orduan eramazu maleta, ni oinez joango naiz-eta.



Jonek eskolako notak ematen dizkio aitari, eta amorru bizian jartzen da hau:
-Fisika 0, Matematika 0, Lengoaia 0,... Baina zigor gogorra merezi du honek!
-Bai, noski –erantzuten dio mutikoak-, baina nik ez dakit irakaslea non bizi den!

Mutiko batek esaten dio beste bati:
-Eskola honetan bakarrik hilabete bat daramat eta dagoeneko hiru sari eman dizkidate.
-Eta zergatik?
-Lehena, oroimen aparta dudalako.
-Eta beste biak?
-Beste biak... beste biak... ba zera... Putza! Ezin gogoratu orain!
Maria Gisasola

Nola esaten da 'zapia' japonieraz?
Kita mokito.

-Ama, ama, hiltzean hauts bihurtzen al gara?
-Bai, seme, bai.
-Ba, orduan nere ohe azpian kanposantu bat dago.

-Zerbitzari, tortila bat, mesedez?
-Frantsesa edo espainola?
-Bost axola, ez dut berarekin hitz egingo-eta.

-Badatoz indiarrek!
-Lagunak ala etsaiak?
-Nire ustez lagunak, elkarrekin datoz-eta.

Ander Avila

TXISTEAK

Mediku bat bere gaixo baten umorea altxatzen saiatzen da:
-Zure bizitza ez dago arriskuan, nik ere gaixotasun hori eduki nuen.
-Bai, jauna, baina nik ez nuen izan mediku berbera.

-Hemen al da haginak doan kentzen dituzten lekua?
-Lehenengo aldia bai.
-Eta bigarrean?
-Ez dakit, inor ez da itzultzen.

-Mediku jauna! Mediku jauna!
Inork ez dit kasurik egiten!
-Hurrengo pasa dadila!

-Mediku jauna, kezkatutako nago bi pertsonalitate ditudalako.
-Ez kezkatu, eseri eta laurok hitz egin dezakegu.

Andoni Etxebarria



Esaten dio Jaimitok Juanitori:
-Etxeko lanak egin dituzu?
-Ez. Zuk?
-Ezta.
-Orduan andereñoak pentsatuko du elkarri kopiatu diogula.

Irati

Oso-oso lodia den gizon batek loredun jantzia egiten badu, zer gertatuko litzateke?
Akabo udaberria!

Tomas



TXISTEAK

-Ama, ama, eskolan hortz-luze deitzen didate.

-Bai seme, bai. Igo zaitez aukira bestela lurra pitzatuko duzu-eta!

Lorena Arregui

Umeak amari:

-Apaizek zergaitik daukate hain ile gutxi?

-Oso argiak direlako.

-Orduan zu ergela zara, ile asko duzu-eta.

Txomin Osoro

-Aita, aita, egia da gurasoak umeak baino azkarragoak direla?

-Bai.

-Orduan zergatik asmatu zuen Guttembergekin inprenta eta ez bere aitak?

Helene



Katu bat kotxean doa eta oilar baten aurka talka egiten du.

Orduan, katuak ohiuka:

-Miauto!

Eta oilarrak:

-Kikirikiaga.

Irene

-Aita, aita, zelan ezkondu zinen: elizatik edo zibiletik?

-Ni, tontoa izateagatik.

Ane

-Ama, ama, ikastolan potolo deitzen didate.

-Eta niri zer?

-Zuri baletxo.

Izaro Fernandez

Neska batek esaten dio beste bati:

-Joe, azken aldiak ez dakit zer gertatzen zaidan: mutil guztiak gustatzen zaizkit, nirea izan ezik.

-Lasai, niri berdina gertatzen zait-eta. Denak gustatzen zaizkit zurea ezik.

Ane Garetxana

Inurrien mundu ma

Kaixo, ni Lorea naiz, eta txikitatik inurrien bizitza nolakoa den jakin nahi izan dut eta, horregatik txikia naizenetik begirutzen diet ea zer egiten duten. Nik orain 15 urte ditut, baina oraindik ere jarraitzen dut inurriei begiratzeko.

Baina, ba al dakizue zer gertatu zitzaidan 11 urterekin? Egun lasai bat zen, ni nire lagunekin etxera nindoan eta lurrerantz begirada bat bota nuen. Lurrean inurriei buruzko liburu bat ikusi nuen.

Nire lagunak, jada, joanak ziren. Orduan liburu zabaldu egin nuen eta bat-batean liburuak xurgatu egin ninduen. Begiak zabaldu nituenean inurritegi batean nengoena eta, gainera, inurri baten itxura nuen. Ni inurri bat banintz bezala, inurritegia ikustera joan nintzen. Inurritegia erraldoia zen. Lehenengo, lagun bat egiten saiatu nintzen, baina denak lan eta lan zeuden. Orduan nik laguntzea erabaki nuen.

Ogitarteko erdia eramaten ari nintzen, baina ez nekien nora. Heldutakoan, ezkereruntz begiradaxo bat bota nuen eta momentu hartan ikusi nuena ikusgarria izan zen. Botatako janari-mendi erraldoi bat zen.



ngikoa

Janari-mendi horretan urte baterako jatekoa zeukaten gutxienez. Inurriek oso gutxi jaten zuten-eta. Ogitarteko hura utzi ondoren, beste gauza bat hartzera nindoan eta, bat-batean, inurri batekin egin nuen topo. Inurri horrek Tiki zuen izena. Barkamena eskatu genion elkarri eta hitz egiten hasi ginen. Ni Tikiri gertatutako guztia kontatu nion eta harrituta gelditu zen. Tikik euren bizimodua azaldu zidan. Oso interesgarria zen beraien bizimodua, baita arraroa ere. Goizean goiz esnatzen ziren eta, gosalduta ondoren, korrika lanera joaten ziren. Inurriak taldeetan banatuta zeuden eta talde bakoitzean buruzagi bat zegoen.

Hori guztia kontatu ondoren, Tikirekin lanera joan nintzen eta gero, bere etxera lotara joaterakoan, desagertzen hasi nintzen eta lurrera itzuli nintzen, baina liburuak hor jarraitzen zuen. Orduan, liburua hartu eta etxera



joan nintzen ziztu bizian.

Hurrengo egunean, eskolatik irten ondoren etxera joan nintzen eta Tikirekin elkartu nintzen berriro. Dena kontatu nion, baita zergaitik desagertu nintzen ere, eta dena ulertu zuen. Geroago, Tikik bere lagunak aurkeztu zizkidan eta baita bere buruzagia ere. Bere agintariak Tikirekin lan egiten utzi zidan eta harrezkero eskolatik irten eta etxera joaten naiz korrika, Tiki bisitatzer.

Ane Lopez

TXIKI HOROSKOPOA

ARIES



Heldu dira oporrak! Hondartzara joan, mendira, lagunekin jolastera, igerilekura... Izango duzu pentsatzen duzun guztia egiteko astirik? Ondo pasatu eta ez zaitez eguzkiarekin erre!



TAURUS

Sanjuanak hastear daude, baina zuk paga osoa xahutu duzu barraketan! Jaiak heltzen direnean begira egon besterik ezingo duzu egin, inbidiarekin! Lasai, beste gauza asko egin daitezke dirurik gabe.



GEMINIS

Oporrak badatoz! Hilabeteetan zain egon eta gero, heldu da motxila etxean laga eta kalean iluntzera arte egoteko sasoi! Etxean ez zara momentu batean ere egongo, nahikoa egon zara orain arte!



CANCER

Pertsona berezi bat ezagutuko duzu udan eta oporretatik bueltan ezin izango duzu burutik kendu. Zure bizitzan bapatean agertuko da, abisatu gabe. Uda paregabea pasatuko duzu, momentu ahaztezinekin!



LEO

Oporrak erdi gaixorik hasiko badituzu ere, hurrengo aste eta hilabeteak zoragarriak izango dira. Hala ere, zaindu zaitez, bestela behar baino gehiago luzatuko zaizu gaixotasun hori!



VIRGO

Krema ondo igurtzi gorputzean, bestela, eguzkiarekin erretzeko aukera handia izango duzu. Gainera, ez da tontokeria bat; oso arriskutsua dela diote jakitunek. Badakizu, ondo pasatu, baina krema eman.

TXIKIHOROSKOPOA



Uda atsedean hartzeko sasoia da, baina zuk hori gaintitzen duzu, alperrontzi hutsa zara! Ez legoke gaizki etxean piska bat laguntzea, orain denbora libre asko daukazu eta. Jan eta lo baino gauza gehiago egin ditzakezu.



Kontuz intsektuekin udan! Astroek diotenez intsektu baten ziztada bat jasoko duzu, baina lasai, momentuan bakarrik egingo dizu min-eta. Bestela, uda oso ondo pasatuko duzu, lagun artean eta familiakoekin.



Imajina ezazu zure burua hondartzan etzanda, lasai-lasai, itsasoaren soinua entzuten... ba hemen da uda jada! Pozik egoteko arrazoi asko dituzu; beraz, zoriontsu izan zaitetz eta daukazunaz gozatu ezazu!



Lagunekin abentura ugari pasatuko duzu uda honetan. Zuek bai zuek, beti trastakeriak egiten! Pasatzen ez bazarete, behintzat, oso ondo egiten duzue! Gazteak zarete eta ahal bezain beste gozatu egin behar duzue!



Arrantza gustuko baduzu, arrain ikaragarriak harrapatu ahal izango dituzu uda honetan. Bestela, konformatu zaitetz bazkaldu edo afaltzerako orduan jatearekin. Ona dagoen bitartean, zuretako mesede!



Uda osoa uretan pasatuko duzu, azkenean ezkatarko irtengo zaizkizu! Piscis izanda, normala beti uretan egotea! Hala ere, argi ibili eta zaindu, bestela katarroa hartuko duzu-eta! Pentsatu duzu surfa egitea? Probatu ezazu!

WWW.ELKARREKIN.ORG/WEB/TOLOSAREA/

TOLOSAREA baliabideteka webgunean Internetek hezkuntza mundurako eskaintzen dituen baliabideak bildu nahi izan dira. TOLOSAREAn baliabideak zuhaitz batean antolatuta daude: adarrek egitura ordenatua osatzen dute, baina baliabideak adaxken bukaera aldeko hostoetan biltzen dira. TOLOSAREAK ez ditu baliabideak bertan, horiek Interneteko beste ehunka webgunetan daude. TOLOSAREA hezkuntzarako erreferentzi bilduma bat da eta baliabideak ikuspuntu partikular batetik antolatuta eta komentatuak ditu. Horrela, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako webgune paregabea, eurentzako gauza ugari aurkitu ahal izango dutelako. Hezkuntza kontuez gain, blogak, web 2.0-a eta beste hainbat lotura aurki daitezke.



Animaliak gustuko dituzu? Ba webgune honetan Euskal Herriko arrazak zeintzuk diren jakin ahal izango duzu. Behiak, ahuntzak, ardiak, astoak, zaldiak, txerriak, txakurra, hegaztiak... Euskal Herrikoak berez zeintzuk diren jakin ahal izango duzu. Bazenekien pottokak hemengoak direla berez? Astoak ere badira, ardi latxak ere. Besteak beste, betizu behien ezaugarria zeintzuk diren jakin ahal izango duzu, euren deskribapena ikusi (argazki eta guzti) eta gaur egun desagertzeko arriskuan dagoen ala ez jakin. Guztira 17 animaliren datuak daude, guztiak Euskal Herrikoak. Gainera, animali horiek zein azokatan ikus daitezkeen ere zehazten da webgunean, non dauden hedatuta eta baita ere euren errolda zenbatekoa den, hau da, zenbat dauden gaur egun.

WWW.NEKANET.NET/RAZAS/DEFAULT.HTM

Animaliak gustuko dituzu? Ba webgune honetan Euskal Herriko arrazak zeintzuk diren jakin ahal izango duzu. Behiak, ahuntzak, ardiak, astoak, zaldiak, txerriak, txakurra, hegaztiak... Euskal Herrikoak berez zeintzuk diren jakin ahal izango duzu. Bazenekien pottokak hemengoak direla berez? Astoak ere badira, ardi latxak ere. Besteak beste, betizu behien ezaugarria zeintzuk diren jakin ahal izango duzu, euren deskribapena ikusi (argazki eta guzti) eta gaur egun desagertzeko arriskuan dagoen ala ez jakin. Guztira 17 animaliren datuak daude, guztiak Euskal Herrikoak. Gainera, animali horiek zein azokatan ikus daitezkeen ere zehazten da webgunean, non dauden hedatuta eta baita ere euren errolda zenbatekoa den, hau da, zenbat dauden gaur egun.



erreportajea



Sanjuanak badatoz!

Sanjuanak heldu dira eta herrian jai-giroa arnasten da. Kale-antzerkia, sua, barrakak, musika, suzko erroberak, dultzaineroak, erraldoiak, danborrada, animaliak... ez da ezer faltako herriko jai nagusietan. Ez dago gaizki pasatzeko aukerarik. Txupinazoaren ordua ailegatu da... PUM! Gora Sanjuanak!

noiz baino beteago datoz aurtan Sanjuanak. Ekainaren hasieratik ekintzak garatzen badihardute ere, hilaren 20tik 28ra murgilduko da herria buru-belarri Sanjuanetan. Horrela, ekainaren 20an, 17.00etatik 20.00etara umeendako puzgarriak eta zezen mekanikoa egongo dira Untzaga plazan Astixaren eskutik, eta 19.00etan Hortzmuga taldeak 'Superplast' kale-antzerkia eskainiko du leku berean. Ekainaren 22an ere kale-antzerkia ikusteko aukera egongo da, Teatrapo taldearen 'Bestiario' lanarekin.

San Juan bezpera, ohikoa den legez, izango da egunik garrantzi-

tsuena eta ekintzaz beterik dator. 12.00etatik 14.00etara musika-tresnen tailerra egongo da Untzagan. Bitartean, 13.00etan, Lizarrako Dultzaineroei ongietorria emango zaie Estaziño kalean eta kalejira egingo da Untzagaraino. Behin Untzagara helduta, 13.00etan, Pregoia irakurriko da eta jaiei hasiera emateko txupinazoa botako da.

Arratsaldeko 17.00etan, berriro ere, musika-tresnen tailerra egongo da Untzagan. 18.00etan, berriz, Urkizutik Untzagaraino erraldoi eta buru-handien kalejira egingo da Lizarrako Dultzaineroekin. Gauan, 23.00etan, Urkitik Untzagara kalejira egingo da





Urkiko Danborradarekin eta, 23.30etan, Untzagan San Juan sua ixotu egingo da eta Eibarko Dantza Garaikide taldeak emanaldia eskainiko du ...eta kitto!-ren eskutik. Gauerdian, urtero bezala, Untzagatik hasita Danborrada egongo da.

Umeen Danborrada

Hurrengo egunean, San Juan egunean, Umeen Danborradak nagusienaren txanda hartuko du Urkizun 19.00etan. Kalejira egin ostean, 20.30etan, Umeen Pregoia irakurriko du Umeen Danborradako Danbor Nagusiak. Eguna amaitzeko, berriz, suzko erroberak egongo dira zerva kolorez margotzen.

Ekainaren 25ean jaiak aurrera egingo du: goizeko 11.00etan Untzagan Circomotric malabar tailerra egongo da. 17.00etan, erraldoi eta buru-handiak berriro ere herrian izango dira Urkizutik Untzagaraino kalejira egiteko. Ordu bat geroago, 18.00etan, El Negro y El Flaco taldeak 'Giramondo: il píu píccolo spettacolo dell mondo' antzezlan eskainiko du. 19.00etan, ...eta kitto!-ren eskutik, Euskal Jaialdia jokatu da Ziriako Ortiz de Zaratek aurkeztuta. Suzko Erroberak emango diote


amaiera eguneko programari, 23.00etan.

Barixakuan, hilaren 27an, Karmen kaleko parkean umeentzako txokolate-jana egingo da 16.30etatik aurrera, 17.30etan umeentzako jolasak hasi dira eta 19.00etan Gorriti bere animaliekin egongo da leku berean.

Jaiei amaiera emateko, ekainaren 28an En la Lona taldeak 'Barre laborategia' antzezlan eskainiko du Urkizuko parkean 19.00etan. Ez dago, beraz, ondo ez pasatzeko aitzakiarik. Gora Sanjuanak!



ZER EGINGO DOZU OPORRETAN?



**JON
ESTANISLAO.**

10 urte

Ahalik eta onduen pasatzen ahaleginduko naiz. Txakurrarekin jolasteko denbora gehixago eukiko dot. Gaiñera, Puerto de Santa Mariara juango naiz.



**JANIRE
FERNANDEZ.**

9 urte

Debara juango naiz gurasuekin oporrak pasatzera Sanjuanen ostian. Han lagunak dittut eta eurekin hondartzara juango naiz jolastera.

Heldu dira Sanjuanak eta jaixekin batera
uda hasiko da! Hondartzara, mendira eta
beste leku askotara juateko ordua heldu da.
Ondo pasau eta irailera arte!



LEIRE NISTAL.

9 urte

Oporrak hasten diranian Eibarren geratuko naiz, baiña gero Tenerifera juango naiz oporrak pasatzera. Han igerilekuan ibilliko naiz, nebarekin jolasian.



ANDONI GARCIA.

9 urte

Villalafila-ra juango naiz, Zamorako herri batera, aitxitxa hangua dalako. Hantxe lagunak dittut eta eurekin igerilekura juateko aukeria eukiko dot.

MULTIKIROLAK

Amañako bikote honek oso gustora hartu du parte aurten mutikiroletan. Atletismoa, judoa, foballa, eskubaloia, errugbia... kirol asko landu dituzte eta, nahiz eta batzuk gehiago gustatu izan, oso pozik amaitu dute ikasturtea.



- Nola joan da urtea multikiroletan?

Asier: Oso ondo egon da. Niretzat hau izan da lehenengo urtea multikirole-



tan eta esan behar dut esperientzia asko gustatu zaidala.

Markel: Nire bigarren urtea izan da aurtengoa eta, lehenengoan bezala, oso ondo pasatu dut kirola egiten.

-Zein kirol egin dituzue?

Biok: Lehenengo atletismoa edo esku pelota aukeratu behar genuen, gero judoa edo aerobika

eta, horren ostean, foballean, eskubaloian eta errugbian aritu gara. Multikirolen ikasturtea amaitzeko, berriz, Kirolaren Eguna ospatu zen, baina gu ezin izan ginen joan.

-Beste kirolen bat gehiago egitea gustatuko litzazueke?

Markel: Nik saskibaloia eta hockeya probatuko nituzke.



Asier de los Toyos eta Markel Berrizbeitia:

“DATORREN URTEAN ERREPIKATU EGINGO DUGU”

Asier: Niri, hockeyaz gain, tenisean aritzea gustatuko litzaidake.

Biok: Hockeya patinetan edo belarretan egitea gustatuko litzaiguke, ez izotzean.

-Zein kirol gustatu zaizue gehien?

Biok: Foballa, egu-nero foballean aritzen garelako.

-Eta gutxien?

Markel: Judoa.

Niretzat hori ez da kirol bat.

Asier: Niri eskubaloia, oso zaila dela iruditzen zaidalako.

-Datorren urtean multikiroletan parte hartuko duzue?

Biok: Bai, errepikatzeari gustatuko litzaiguke, eta beraz, izena emango dugu.

-Jendea animatuko zenukete multikiroletan parte

hartzera?

Biok: Bai, noski.

Markel: Neskei esaten diegu kirolean egiteko eta abar, baina askok ez dute nahi izaten.



**BERTSOZALE ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN,
BERTSOTAN ATALEAN BERTSOGINTZA LANDU DUGU
IKASTURTEAN. ALE HONETAN ZUEN AZKENENGO
LANAK KALERATUKO DITUGU ETA BERTSOZALE
ELKARTEAREKIN BERBA EGIN DUGU IKASTURTEA ZER**

KOPLAK

Animaliak

Gehien gustatzen zaizkit
niri izurdeak,
eskama desberdinak
bere koloreak.

Txuriak eta beltzak
dira politenak,
oihanean bai daude
beti hartz gehienak.

Bera bai babesteko
bere tinta beltza,
eta gustatzen zaie
uretako gatza.

Gaueko animalia
badira katuak,
txiki-txikiak dira
ai gure saguak.

Oporrak

Oporrak laster datoz
klaseak akabo,
matematikak baino
hondartza nahiago.

Mendi edo hondartza
nora joango gara,
arrantza egitera
noa itsasora.

Lagunei agur esan
bidaia hasteko,
eta opor denetan
ondo pasatzeko.

Primeran pasa ezker
azkar pasatzen da,
konturatu orduko
berriz eskolara.

urteari errepassoa



Bertsolaritza lagun

Bigarren urtez jarraian, ahoskotasuna eta Bertsolaritza proiektua landu dute Eibarko hainbat ikastetxek. Iaz Arrateko Andra Mari, La Salle Isasi, Aldatze eta Iturburuk hartu zuten parte proiektuan, eta aurten Amaña eta Urkizu gehitu zaizkie. Guztira, 250 ikasle eta 13 gela izan dira aurtengo ikasturtean bertsolaritza eta ahoskotasuna lantzen.

Nerea Urra Bertsozale Elkarteko kideak esan digunez duenez, *“aurtengo kurtsoaren balorazioa oso positiboa da”*. Proiektua finkatuz doa eta Eibar, hiri moduan, oso inplikatur dagoela dio Nereak. Horrela, proiektuak bere balioa frogatu duela agerian laga eta aurrerantzean emaitza argiagoak ematen joango direla uste du.

Ikasleei dagokienez, bigarren ikasturtez parte hartu duten ikasleek, landu dituzten eduki eta gaita-

sunen jabe egin eta etekina ateratzeko prest daudela uste du Nereak. Euskararekiko duten jarra positiboa da, beraien diskurtsoa antolatzeke gaitasunean aurrerapausoak eman dituzte, bertsolaritza hobeto ezagutu eta baloratzen dute, eta orokorrean, proiektu honen bitartez landutakoa beste gaietara eta eskolaz kanpoko arlotara eramateko eta aplikatzeko gai dira.

Bertso-jaialdi bi

Aurten bertso-jaialdi bi egin dira Coliseoan. Horrela, maia-





tzaren 22 eta 29an proiektuan parte hartu duten ikastetxeetako ikasleak bertsotan aritu ziren bertan, eta ekitaldi bi hauen gainean Nerea Urrak *“oso balorazio positiboa”* egiten du. *“Ikasleek lan politikak taularatu zituzten, eta oholtzako eta mikrofono aurreko jarreran aurrerapauso handiak eman dituztela ikusi zen”*.

Gaztetxoen bertso-eskola

Proiektuaren beste ondorio positibo bat Eibarren gaztetxoen ber-

tso-eskola berreskuratzea izan daiteke Nerearen esanetan. Izan ere, hortan lanean hasita daude datorren ikasturteari begira eta talde bat osatzea posible dela aurreikusten du Nereak. *“Bertso-eskola ez da proiektu honetan ari diren ikasleentzat bakarrik, joateko interesa duen edonork dauka aukera bera”*. Beraz, izena eman nahi izanez gero, aski da izen-abizenak, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta maila jakinaraztea gipuzkoa@bertsozale.com helbidera mezu bat bidaliz edo 943670575 telefonora deituz.



BOST BURUDUN ESKULARRUA

**Atzamarrek bizitza propioa izatea nahi duzu?
Eskulan honekin zuk nahi duzun izaera eman ahal
izango diezu eskuko atzamarrei!**


MATERIALA:

- Eskularru bat.
- Etiketak.
- Koloreak.
- Kola
- Guraizeak.
- Haria.



NOLA EGIN:

- 1- Egin nahi duzun animaliaren arabera, belarri batzuk moztu zuk nahi duzun kolore eta formarekin.
- 2- Etiketen gainean begiak eta sudurra marraztu (lehendabizi papera erabili dezakezu eta gero pegatu)
- 3- Hariarekin arratoi, katu eta untxien bigoteak egin ditzakezu.
- 4- Behin animaliek dituzten atal guztiak eginda, eskularrua kolorekin itsatsi. Gona edo lepokoak ere egin deizaiekezu.



AHOLKUA:

- Galtzerdiei ere bizia eman diezaiekezu, nahi izanez gero. Horretarako, galtzerdi bat hartu, barruan eskua sartu eta itsatsi iezaiozu zuk nahi dituzun atal guztiak.

HIRU LAGUN


UBARROIAK HEGAZTIAK DIRA, BAINA BADAHITE IGERIAN. IZOKINAK ARRAINAK DIRA, BAINA KASIK HEGAN IBILTZEN DIRA. HORREGATIK EZ DIRA OSO ONGI KONPONTZEN. HALA ERE, BEHIN UBARROI BAT ETA IZOKIN BAT LAGUN EGIN ZIREN. HAIZEA ERE HAIEN LAGUN EGIN ZEN, ETA BERAK KONTATUKO DIGU ADISKIDETASUN HONEN ISTORIO EDERRA.



JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAN

EZINEZKOA


EZINEZKO GAUZAK GERTATZEN DIRA LIBURU HONETAN: BADA MUTIKO BAT DENA ALDERANTZIZ EGITEN DUENA, BESTE BAT SABAIA IBILTZEN DENA, BESTE BAT HITZAK NAHASTEN DITUENA; BADA NESKATILA BAT IKUSEZIN BIHURTZEN DENA, BESTE BAT ISPILUA ZEHARKATZEN DUENA... GAUZA HARRIGARRIAK DENAK ERE, BAINA, GUZTIAREN GAINETIK LIBURU HONEK EZAUGARRI NAGUSI BAT DU: HAU IRAKURRIZ, EZINEZKOA DA ASPERTZEA.



NON BIZI DA BILDUR?


NOR AUSARTUKO DA BILDURREN AURKA EGITEN? NORK DU BILDURRAREN JAUNARI AURRE EGITEKO BEHAR DAN ADOREA? ZUK? HOLAN BADA, ZABALDU EGIZU LIBURUA ETA HASI IRAKURTZEN! AMAITUTAKOAN, ORAINDINO AUSARTZEN BAZARA, BARRIRO HITZ EGINGO DOGU. BAINA... EGON! IRAKURTZEN HASI AURRETIK, GAUZA BAT JAKIN BEHAR DUZU, HOR BARRUAN, ORRI HORREN ARTEAN, BADUZU ZU BEZAIN AUSARTA DEN MUTIKO BAT: MIKEL.





MATTINEN HASERREA


**MATTIN ZEHARO HASERRE DAGO. MATTIN HASERRE DAGO GOIZ-
GOIZEAN OHETIK JAIKITZEAN, IKASTOLA JOATEAN,
ANDEREÑOAREKIN ESKOLAN, IKASKIDEEEKIN BAI IKASGELAN,
BAI JOLAS-ORDUAN. ZERGATIK DAGO HASERRE MATTIN?**



ZALDUN BELTZAK

**MAIDER SARRI HASERRETZEN DA JOKIN GALTAGORRIREKIN, BAINA
HAREN BEHARRA DAUKA. NORK KONTATUKO DIO BESTELA ZALDUN
BELTZEN KONDAIRA INTERESGARRIA LUZE ETA ZABAL? IZAN ERE,
KONDAIRA HORREK, ENTZUN AHALA, ENTZUTEKO GOGO GEHIAGO
SORTZEN BAITU. MEER-MARI PRINTZESA DA ISTORIO ERAKARGARRI
HONEN PROTAGONISTA AUSARTA.**

EIBARKO LIBURUDENDETAN SALGAI



IRUZURMENDI

**WILEY KAZETARI BATEN SEMEA DA ETA BERE ARREBA, GURASO ETA
JOHNSON JAUNA IZENeko ANTZARAREKIN HIRU URTE LEHENAGO
BERE AITONAK ZEDARRITU OMEN ZUEN GOIZTIRI HIRIRANTZ
ABIATU DA. GOIZTIRIRANZKO BIDAIAK, BIZIMODUA ATERATZEKO
EGUNKARIAK ARGITARATU BEHARRAK, AITONA NAHIAK ETA GAIZKI-
LEEKIKO TIRABIREK BIZI ERRITMO ZIRRARAGARRIA EZARRIKO
DIOTE FAMILIA ARRUNT BEZAIN BEREZI HONI.**

URJEAK

Urrengo egunean

YAZO &

